



Bizitzak

Koldo Alijostes

Upaingoa etxez etxe, 1

978-84-9172-206-9

2020. urtea - 192 or. - 13x19 cm

15,00 €

Irakurle, gure familian gertatutakoak aurkituko dituzu liburu honetan, etxekeok etxean kontatutakoak, benetako bizipenak. Arruntak dira batzuk. Latzak, hainbat. Alaiak eta hunkigarriak ere ez dira falta.

Etxean entzun bezalaxe eskaintzen dizkizut. Aipatzen diren gertaera guztiak XX. mendekoak dira, Tolosa aldekoak, eta, etxekeo historia ez ezik, Euskal Herrikoa jartzen digute begi aurrean: gerra aurreko bizitza, 1936ko gerra, ondorengo gose garaiak, frankismoko errepresioa eta abar. Gizarte-egoera beraren aurrean, familia edota pertsona bakoitzaren bizipenak ezberdinak dira, eta nire senideei jazoera bereziak bizi izatea tokatu zitzairen. Momentu bakoitzean gertatzen ari zena barrundik bizi izan zuten, Historiaren taupadak soinean sentitu zituzten, ez ziren ikusle hutsak izan, eta horregatik, garaia gordin eta garden islatzen da haien bizitzetan.

Zenbait deskribapen eta datu historiko ere gehitu ditut, garrantzizkoa iruditzen baitzait, pertsona jakin batzuen bizitza kontatzeko, garaiko gizarte-egoeraren, bizimoduaren, pertsonen eta lekuen berri ematea.

Kontakteta honen guztiaren ardatza gure aita eta amaren bizitza da, beraiek dira protagonista nagusi. Etxean, mahai inguruan, beraiei aditutakoak dira istorio gehienak. Zenbaitetan, beraien hitz zehatzak jarri ditut, grabatu bezalaxe zuzenagoak eta biziagoak direlako. Aitaren izaera zela-eta, haren bizitzaren inguruko pasadizoak dira luze-zabalenak, seguru aski bizitzan ekintzaile jokatu zuelako eta zoriak zenbait esperientzia berezi bizi arazi zizkiolako. Ama, etxera begira bizi izan da, eta bere kontaktak ikusgarriak ez diren arren, ez dira garrantzi gutxiagokoak.

Nire bizipen batzuk ere agertzen dira lerro hauetan, historiaren lekukotzak ere badirelako, eta narrazioaren hariari ondo lotzen zaizkiola uste izan dudalako.



Koldo Alijostes Bordagarai

Amezketan (Gipuzkoa) jaio zen 1962an baina aspalditik Gasteizen bizi da. Irakaslea ogibidez, *Euskal Herriko mitologiaren jainkoak eta jeinuak* dibulgazio liburuaren egilea da, eta www.amaroa.eus webgunearen arduraduna.

Memoria historikoaren inguruan ere jardun du, eta gai hori eskolara eramateko *Oroimenaren harra* webgunearen sortzaile eta kolaboratzaileetako bat da.